Por último, 2020 ha sido un año de reflexión interna en relación a algunos puestos de trabajo que se ven necesarios estructuralmente.

Del análisis efectuado se desprende la necesidad de crear tres puestos nuevos así como la conveniencia de modificar alguna función asignada a los puestos que se indican en la parte dispositiva.

Horrenbestez, Donostia Kulturaren Zuzendari kudeatzaileak 2021eko martxoaren 16ko dataz idatzitako txostenean xedapen zatian adierazten den lanpostuen sorrera proposatu du.

Proposamena langileen ordezkariekin negoziatu da.

Sortuko diren lanpostu berriei behin behineko ordainsariak esleitu zaizkie eta aldatuko diren lanpostuei ere bai, nahiz eta azken horien egungo balorazioa ez den aldatzen, indarrean dagoen Lanpostuak Balioesteko Sistemari eusteko Araudi Teknikoak aurreikusten duen moduan.

Ticketing eta marketin Teknikaria lanpostuaren urteko kostua, egungo ordainsari eta gizarte gastuen arabera kalkulatuta, 53,500 €koa da eta organigraman Komunikazioa eta Irudia sailean kokatuko da.

Jazzaldiaren prentsa eta komunikazio arduraduna lanpostuaren urteko kostua, egungo ordainsari eta gizarte gastuen arabera kalkulatuta, 53,500 €koa da eta organigraman Musika sailean kokatuko da.

Publiko Arretarako Koordinatzailea lanpostuaren urteko kostua, egungo ordainsari eta gizarte gastuen arabera kalkulatuta, 44.300 €koa da eta organigraman Produkzio sailean kokatuko da.

Publiko arretarako administrari laguntzailea-Antzokiak, Publiko arretarako administrari laguntzailea-San Telmo eta Publiko arretarako administrari laguntzailea-San Telmo2 lanpostuetan lehen funtzioa aldatzen da, jarduera-esparrua norberaren zentrutik Donostia Kultura erakunde osora zabaltzen baita.

En base a todo ello, el Director-gerente de Donostia Kultura ha emitido con fecha 16 de marzo de 2021 propuesta de creación de tres puestos, en los términos que se detallan en la parte dispositiva de esta propuesta.

La propuesta se ha negociado con la representación del personal.

A los puestos de nueva creación se les han asignado niveles salariales provisionales y a los puestos que se modifican también, aunque la valoración actual de estos últimos no varía, tal y como se recoge en la vigente Normativa Técnica para el mantenimiento del sistema de valoración de puestos de trabajo.

El puesto Técnico/a de ticketing y marketing supone un coste anual, calculado sobre las retribuciones y gastos sociales actuales de 53,500 € y se incluirá dentro del organigrama en el área de Comunicación e Imagen.

El puesto Responsable de Prensa y Comunicación del Jazzaldia supone un coste anual, calculado sobre las retribuciones y gastos sociales actuales de 53,500 € y se incluirá dentro del organigrama en el área de Música.

El puesto Coordinador/a de Atención al Público supone un coste anual, calculado sobre las retribuciones y gastos sociales actuales de 44,300 € y se incluirá dentro del organigrama en el área de Producción.

En los puestos Auxiliar Administrativo de Atención al Público-Teatros, Auxiliar Administrativo de Atención al Público- San Telmo y Auxiliar Administrativo de Atención al Público- San Telmo2 cambia la primera función, ya que su marco de actuación se amplia desde el propio centro a la totalidad de la Entidad Donostia Kultura.

Nahiko kreditua dago Donostia Kulturako aurrekontuan gastua finantzatzeko.

Lanpostuak langile interinoekin beteko dira eta behin betikoz betetzeko prozesuak abiatuko dira, aplikagarria den araudiak eta bereziki, Estatuko Aurrekontu Orokorren Legeak onartzen duenean.

Hori horrela, 41. artikuluaren arabera, Udalbatzak, udal tutoretza gauzatzeko, EEPren langile zerrenda onartu beharko du.

Horregatik guztiagatik, 2019ko uztailaren 3an Presidentziak emandako ebazpenaren bitartez eman zaizkidan eskumenak erabiliz, Donostia Kultura Enpresa Erakunde Publikoaren Administrazio Kontseiluari proposatzen diot erabaki hauek hartzea:

ERABAKIAK

Lehenengoa.- I. Eranskinean zehaztuta dagoen DONOSTIA KULTURA Enpresa Erakunde Publikoaren Komunikazioa eta Irudia, Musika eta Produkzioa sailen organigramaren aldaketa onartzea.

Bigarrena.- Ondoren aipatzen diren lanpostuak sortzea eta horien katalogo orriak onartzea. Atxikitzen dira:

- Ticketing eta marketin Teknikaria
- Jazzaldiaren prentsa eta komunikazio arduraduna
- Publiko Arretarako Koordinatzailea

Hirugarrena.- Ondoren zerrendatzen diren lanpostuen katalogo orrien aldaketa onartzea. Atxikitzen dira:

Publiko arretarako administrari laguntzailea-

Existe crédito suficiente en el presupuesto de Donostia Kultura para financiar dicho gasto.

Los puestos se cubrirán con personal interino y los procesos para cobertura definitiva se iniciarán cuando lo permita la normativa de aplicación y en particular la Ley de Presupuestos Generales del Estado.

Dicho esto, el artículo 41 de los Estatutos de la EPE establece que el Ayuntamiento Pleno, en ejercicio de la tutela municipal, deberá aprobar la plantilla del Ente.

Por todo ello, en virtud de las atribuciones que me fueron conferidas por la Resolución de la Presidencia de 3 de julio de 2019, propongo al Consejo de Administración de la Entidad Pública Empresarial Donostia Kultura que adopte los siguientes:

ACUERDOS

Primero.- Aprobar la modificación del organigrama de las áreas de Comunicación e Imagen, Música y Producción de la Entidad Pública Empresarial DONOSTIA KULTURA detallada en el anexo. I

Segundo.- Aprobar la creación de de los siguientes puestos de trabajo y sus correspondientes hojas de catálogo, que se adjuntan:

-Técnico/a de ticketing y marketing
- Responsable de Prensa y Comunicación del Jazzaldia
- Coordinador/a de Atención al Público

Tercero.- Aprobar la modificación de las hojas de catálogo que se adjuntan, correspondientes a los siguientes puestos:

- Auxiliar Administrativo de Atención al Público-

Antzokiak
Publiko arretarako administrari laguntzailea-San Telmo
Publiko arretarako administrari laguntzailea-San Telmo2

Laugarrena.- Erabaki hau Udalbatzari aurkeztea, behin betiko izaeraz onets dadin.

EEPren Estatutuetako 41, artikuluaren arabera, Udalbatzak, udal tutoretza gauzatzeko, EEPren langile zerrenda onartu behar du.

Horiek horrela, honako erabaki hau har dezala eskatzen zaio Udalbatzarrari:

ERABAKIA

Ondoren aipatzen diren lanpostuak sortzea:

- Ticketing eta marketin Teknikaria

- Jazzaldiaren prentsa eta komunikazio arduraduna

- Publiko Arretarako Koordinatzailea

Teatros.
- Auxiliar Administrativo de Atención al Público-San Telmo.
- Auxiliar Administrativo de Atención al Público-San Telmo2.

Cuarto.- Elevar el presente acuerdo al Pleno del Ayuntamiento para que proceda a su aprobación definitiva.

El artículo 41 de los Estatutos de la EPE establece que el Ayuntamiento Pleno, en ejercicio de la tutela municipal, deberá aprobar la plantilla del Ente.

En base a lo expuesto, se propone al Ayuntamiento Pleno la adopción del siguiente:

ACUERDO

Aprobar la creación de los siguientes puestos de trabajo:

-Técnico/a de ticketing y marketing

- Responsable de Prensa y Comunicación del Jazzaldia

- Coordinador/a de Atención al Público

Donostian, 2021eko martxoaren 29an.

Jon Insausti Maisterrena

Lehendakariordea”

Eztabaida hasita, Jon Insausti Maisterrena jaunak, Aitzole Araneta Zinkunegi andreak, Borja Corominas Fisas jaunak, Marisol Garmendia Beloqui andreak eta Reyes Carrere Zabala andreak parte hartu dute puntu honetan, Bilkura Egunerokoan jasotako bileraren grabazioan ageri dena adieraziz.

Abierta la deliberación, intervienen en este punto los/las señores/as D. Jon Insausti Maisterrena, D.ª Aitzole Araneta Zinkunegi, D. Borja Corominas Fisas, D.ª Marisol Garmendia Beloqui y D.ª Reyes

Carrere Zabala, en los términos que resultan de la grabación de la sesión incorporada al Diario de Sesiones.

**BOZKETAREN EMAITZA:**
**ONARTUA.**
**GEHIENGOA.**
**ALDEKO BOTOAK: 22 – (9) EAJ-PNV, (5) EH BILDU, (5) PSE-EE, (3) ELKARREKIN DONOSTIA.**
**AURKAKO BOTOAK: 0**
**ABSTENTZIOAK: 3 – PP.**

**RESULTADO DE LA VOTACIÓN:**
**APROBADA.**
**MAYORÍA.**
**VOTOS A FAVOR: 22 – (9) EAJ-PNV, (5) EH BILDU, (5) PSE-EE, (3) ELKARREKIN DONOSTIA.**
**VOTOS EN CONTRA: 0**
**ABSTENCIONES: 3 – PP.**

---------------

**ZERBITZU OROKORREN BATZORDEA**

**COMISIÓN DE SERVICIOS GENERALES**

**8. Proposamena, EH BILDU taldeak aurkeztua, Ekialdeko Barrutiaren mugakide diren herriekiko gaietarako batzorde ez iraunkorra sortzekoa.**

“EH Bildu udal taldeko bozeramaile Reyes Carrere Zabalak, Udalbatzaren Araudi Organikoaren 90., 91. eta 148. artikuluak oinarri hartuta, Ekialdeko Barrutiaren mugakide diren herriekiko gaietarako BATZORDE EZ IRAUNKORRA sortzeko PROPOSAMEN hau aurkezten du.

JUSTIFIKAZIOA

Donostiako Ekialdeko Barrutiak muga egiten du Astigarraga, Errenteria eta Pasaia udalerriekin. Muga horietan Ekialdeko Barrutiak hainbat auzo ditu, tamaina, gertutasun eta ezaugarri ezberdinak dituztenak. Eremu horietako bizilagunek elkarbizitza eta harreman sare sakonak dituzte mugakide diren herriekin, eta

**8. Proposición, presentada por el Grupo EH BILDU, para la creación de una Comisión No Permanente de asuntos con las localidades límitrofes al Distrito Este**

“Reyes Carrere Zabala, portavoz del grupo municipal EH Bildu, en base a los artículos 90, 91 y 148 del Reglamento Orgánico del Pleno, presento la siguiente PROPUESTA de creación de una COMISIÓN NO PERMANENTE para asuntos relacionados con los pueblos colindantes con el Distrito Este.

JUSTIFICACIÓN

El Distrito Este de San Sebastián limita con los municipios de Astigarraga, Errenteria y Pasaia. En esos límites el Distrito Este cuenta con varios barrios de diferente tamaño, proximidad y características. Los vecinos de esas zonas tienen profundas redes de convivencia y relación con los pueblos colindantes, y comparten necesidades y

beharrak eta irtenbideak ere partekatzen dituzte. Hainbat herritan kokatuta egoteak ere disfuntzioak, nahasteak eta arazoak eragiten ditu sarri, atez ate bizi arren.

Horien adibide argiena Azkuene, Eskalantegi eta Molinao biziguneak dira. Eremu horietako bizilagunek eguneroko erosketak, bizitza soziala edota zerbitzu publikoen premiak eta irtenbideak partekatzen dituzte pasaitarrekin; gauza bera esan daiteke Antondegi, Lau Haizeta eta Bizarain mendiaren magaletako bizilagunen inguruan ere, landa eremuak izanik, ezaugarri, premia eta harreman ezberdinak dituzten arren. Covid-19ak eragindako pandemiak ere areagotu egin ditu aipatu disfuntzio horiek, hala nola, etxeratzeko agindu ezberdinen edota konfinamendu perimetralen ondorioz.

Bestalde, mugakideak diren eremuok egiturazko eta estrategikoak diren egitasmoak partekatzen dituzte. Esanguratsuena Pasaiako portua da, urtetan badia inguruko familien ogibidea eta diru iturri nagusia izan baita. Era berean, landa eremuak daude inguru horietan, baina eremu jendetsu honen aisiarako eta osasunerako baliabide gisa baino, hirigintza eta azpiegitura egitasmoetarako hartua izaten ari da.

EH Bilduren ustez, beharrezkoa da Udalak aztertzea Ekialdeko Barrutiak mugakide dituen herriekin partekatzen dituen harremanak, arazoak eta premiak, irtenbideak adostuak izan daitezen mugakide diren udalekin, gai horien inguruan hitz egiteko garaian. Horregatik, EH Bildu taldeak EKIALDEKO BARRUTIAREN MUGAKIDE DIREN HERRIEKIKO GAIETARAKO BATZORDE EZ IRAUNKOR BAT SORTZEKO PROPOSAMEN hau egiten du.

- Helburua: Ekialdeko Barrutiak mugakide dituen herriekin partekatzen dituen harremanak, arazoak eta premiak zerrendatzea eta aztertzea, irtenbideak adostea eta horien ezarpenari

soluciones. El estar emplazado en varias localidades también genera disfunciones, confusiones y problemas, a menudo, a pesar de vivir puerta a puerta.

El ejemplo más claro son los núcleos urbanos de Azkuene, Eskalantegi y Molinao. Los vecinos y vecinas de estas zonas comparten con los pasaitarras la compra diaria, la vida social o las necesidades y soluciones de los servicios públicos; lo mismo puede decirse de las vecinas y vecinos de las laderas de Antondegi, Lauaizeta y Bizarain, que al tratarse de zonas rurales, tienen características, necesidades y relaciones diferentes. La pandemia provocada por el COVID-19 también ha intensificado estas disfunciones, como consecuencia de las diferentes decretos de confinamiento domiciliario o perimetrales.

Por otro lado, estas zonas limítrofes comparten proyectos estructurales y estratégicos. Lo más significativo es el puerto de Pasaia, que durante años ha sido la principal fuente de ingresos y el oficio de las familias de la zona. A su vez, existen zonas rurales en esas zonas, pero más que como recursos para el ocio y la salud de esta zona muy poblada, están siendo ocupadas para proyectos de urbanismo e infraestructuras.

EH Bildu considera necesario que el Ayuntamiento estudie las relaciones, los problemas y las necesidades que comparte el Distrito Este con los municipios limítrofes, para que las soluciones sean consensuadas con los ayuntamientos colindantes a la hora de hablar sobre esos asuntos. Por ello, EH Bildu propone la creación de una COMISIÓN NO PERMANENTE PARA ASUNTOS RELACIONADOS CON LOS PUEBLOS COLINDANTES CON EL DISTRITO ESTE.

- Objeto: Enumerar y analizar las relaciones, problemas y necesidades que comparte el Distrito Este con los municipios limítrofes, consensuar soluciones y realizar el seguimiento de cómo se

jarraipena egitea.

- Osaera: Ekialdeko Barrutiko ordezkariak (gehienez udal taldeen ordezkariak adina), zeharkako zerbitzuak koordinatzeko zuzendaria eta udal talde bakoitzeko kide bat. Botoa haztatua izango da (zuzendariak ez du bozkarik izango).

- Iraupena: bi urte.

- Bileren araubidea: hiru hilean behin egingo da.

Donostia, 2021eko apirilaren 9an

Reyes Carrere Zabala
EH Bildu udal taldeko bozeramailea".

implantan.

- Composición: Representantes del Distrito Este (como máximo, tantos representantes de los grupos municipales), director o directora de coordinación de los servicios transversales y un miembro de cada grupo municipal. El voto será ponderado (el director no tendrá voto).

- Duración: dos años.

- Régimen de reuniones: se celebrarán trimestralmente.

En San Sebastián, a 9 de abril de 2021

Reyes Carrere Zabala,
portavoz del grupo municipal EH Bildu".

Eztabaida hasita, Zigor Etxeburua Urbizu jaunak, Marta Huarte Paño andreak, Jorge Mota Iglesias jaunak eta Juan Ramon Viles Michelena jaunak, parte hartu dute puntu honetan, Bilkura Egunerokoan jasotako bileraren grabazioan ageri dena adieraziz.

Abierta la deliberación, intervienen en este punto los/la señores/a D. Zigor Etxeburua Urbizu, D.ª Marta Huarte Paño, D. Jorge Mota Iglesias y D. Juan Ramón Viles Michelana, en los términos que resultan de la grabación de la sesión incorporada al Diario de Sesiones.

**EH BILDU TALDEAK 8. GAIARI AURKEZTUTAKO ZUZENKETA TEKNIKOAREN BOZKETA / VOTACIÓN DE LA ENMIENDA TÉCNICA AL ASUNTO N.º 8 PRESENTADA POR EL GRUPO EH BILDU:**

**BOZKETAREN EMAITZA:**
**BAZTERTUA.**
**GEHIENGOA.**
**ALDEKO BOTOAK: 8 – (5) EH BILDU, (3) ELKARREKIN DONOSTIA.**
**AURKAKO BOTOAK: 17 – (9) EAJ/PNV, (5) PSE-EE, (3) PP.**
**ABSTENTZIOAK: 0**

**RESULTADO DE LA VOTACIÓN:**
**RECHAZADO.**
**MAYORÍA.**
**VOTOS A FAVOR: 8 – (5) EH BILDU, (3) ELKARREKIN DONOSTIA.**
**VOTOS EN CONTRA: 17 – (9) EAJ/PNV, (5) PSE-EE, (3) PP.**
**ABSTENCIONES: 0**

**8. GAIAREN BOZKETA / VOTACIÓN DEL ASUNTO N.º 8:**

**BOZKETAREN EMAITZA:**
**BAZTERTUA.**
**GEHIENGOA.**
**ALDEKO BOTOAK: 8 – (5) EH BILDU, (3) ELKARREKIN DONOSTIA.**
**AURKAKO BOTOAK: 17 – (9) EAJ/PNV, (5) PSE-EE, (3) PP.**
**ABSTENTZIOAK: 0**

**RESULTADO DE LA VOTACIÓN:**
**RECHAZADO.**
**MAYORÍA.**
**VOTOS A FAVOR: 8 – (5) EH BILDU, (3) ELKARREKIN DONOSTIA.**
**VOTOS EN CONTRA: 17 – (9) EAJ/PNV, (5) PSE-EE, (3) PP.**
**ABSTENCIONES: 0**

---------------

**KONTRATAZIOAREN KONTROLERAKO ETA JARRAIPENERAKO BATZORDE BEREZIA**

**COMISIÓN ESPECIAL DE CONTROL Y SEGUIMIENTO DE LA CONTRATACIÓN**

**9. 2020ko ekitaldiari dagokion oroitidazkiaren berri ematea.**

UDALBATZARI

Udalbatzaren Organo Araudiko IX. Tituluak eta, bereziki, VI. Kapituluak arautzen dute Kontratazioa Kontrolatzeko eta Jakitun Egoteko Batzorde Berezia.

Batzorde berezi hori dugu udal Administrazio osoaren kontratu bidezko jarduera kontrolatzeko eta zaintzeko organoa, hau da, barne hartzen ditu Udala bera, erakunde autonomoak, udalaren enpresa erakunde guztiak eta osorik udalarenak diren baltzu publikoak, eta helburu du kontratazioan publizitatea, lehia mugagabea, objektibotasuna, gardentasuna eta eraginkortasuna bermatzea.

Batzordeak Udalbatzari jardueren urteko

**9. Dar cuenta de la Memoria correspondiente al ejercicio 2020.**

AL EXCMO. AYUNTAMIENTO PLENO

El Reglamento Orgánico del Pleno regula en su Titulo IX las Comisiones del Pleno y de modo especifico en el Capítulo VI la Comisión Especial de Control y Seguimiento de la Contratación.

La Comisión Especial es el Órgano de control y vigilancia de la actividad contractual de toda la Administración Municipal, es decir, Ayuntamiento, Organismos Autónomos, Entidades Públicas Empresariales y Sociedades Públicas y tiene por finalidad garantizar la publicidad, libre concurrencia, objetividad, transparencia y eficacia de la contratación.

La Comisión debe elevar al Ayuntamiento Pleno

Oroitidazkia bidali behar dio.

Batzordeak 2008ko otsailaren 5eko bilkuran legealdi osorako funtzionamendu arauak onartu zituen, eta urteko oroitidazkiari dagokionez, edukia, aldizkakotasuna, lanketa eta izapidetzea.

Aipatu arauen ondorioz, batzordeburuak oroitidazkia onarkizun bidaliko dio Batzordeari dokumentuak jasotzen duenaren hurrengo ekitaldiko lehen hiruhilekoan.

Batzordeak onarturiko oroitidazkiaren jakitun jarriko dute Donostiako Gobernu Batzarra.

Oroitidazkia; eta halakorik egonez gero, gogoetak eta hobetze proposamenak; Udalbatzari bidaliko diote, jakitun jartzeko asmoz.

Batzordeak 2021eko martxoaren 30eko bilkuran 2020ko Ekitaldiko Oroitidazkia onartu zuen, osagai dituela aipatu ekitaldian kontrolaturiko kontratuen analisia.

Aipatu oroitidazkiaren jakitun jarri dute Donostiako Gobernu Batzarra 2021eko apirilaren 13an izandako bilkuran.

Horiek horrela direla,

“Donostiako Udalbatza 2020ko Ekitaldiko Oroitidazkiaren jakitun dago; Udalak, erakunde autonomoek, enpresa erakunde publikoek eta udalaren baltzu publikoek eratzen duten Tokiko Sektorearen Kontratazioa Kontrolatzeko eta Jakitun Egoteko Donostiako Udalaren Batzorde Bereziaren eginak jasotzen dituena”.

una Memoria  anual de sus actividades.

La Comisión, en sesión celebrada el 5 de febrero de 2008, aprobó sus Normas de Funcionamiento para toda la Legislatura y en relación con la Memoria Anual su contenido, periodicidad, elaboración y tramitación.

De conformidad con dichas Normas, el Presidente elevará la Memoria, para su aprobación, a la Comisión dentro del primer trimestre del ejercicio siguiente al que se refiere.

De la Memoria aprobada por la Comisión se dará cuenta a la Junta de Gobierno Local.

La Memoria conteniendo, en su caso, consideraciones y propuestas de mejora, se elevará al Ayuntamiento Pleno para su conocimiento.

La Comisión, en sesión celebrada el día 30 de marzo de 2021, ha aprobado la Memoria correspondiente al Ejercicio 2020 comprensiva del análisis de los contratos objeto de control del citado ejercicio.

De dicha Memoria ha tenido conocimiento la Junta de Gobierno Local en su sesión celebrada con  fecha 13 de abril de 2021.

En base a lo expuesto,

“El Excelentísimo Ayuntamiento Pleno toma conocimiento de la Memoria correspondiente al ejercicio 2020 en la que se recogen las actuaciones realizadas por la Comisión Especial de Control y Seguimiento de la Contratación del Sector Público Local del Ayuntamiento de Donostia-San Sebastián, integrado por el propio Ayuntamiento, sus Organismos Autónomos, sus Entidades Publicas Empresariales y las Sociedades Públicas Municipales”.

Donostian, 2021eko apirilaren 13an

Izpta.: Charo García

Udalaren Barruko Kontrolaren
Arduradun Kudeatzailea

Izpta.: RICARDO BURUTARAN

Kontratazioa Kontrolatzeko eta Jakitun Egoteko Batzorde Bereziaren Burua.
Presidente de la Comisión Especial de Control y Seguimiento de la Contratación".

**BOZKETAREN EMAITZA:**
**JAKINEAN.**

**RESULTADO DE LA VOTACIÓN:**
**ENTERADO.**

---------------

**II**

**INFORMAZIO, SUSTAPEN ETA KONTROLA**

**II**

**INFORMACIÓN, IMPULSO Y CONTROL**

**II.1**

**MOZIO ARRUNTAK**

**II.1**

**MOCIONES ORDINARIAS**

**10. Mozio arrunta, EH BILDU taldeak aurkeztua, Herrerako tren geltokiko behin-behineko sarbidearen irisgarritasuna dela eta.**

"EH BILDU udal taldeko bozeramaile Reyes Carrere Zabalak, Udalbatzaren Organo Araudiko 98. artikulua oinarri, honako MOZIO ARRUNT hau aurkezten du, Herrerako tren geltokiko behin-behineko sarbidearen irisgarritasuna dela eta.

JUSTIFIKAZIOA

**10. Moción ordinaria, presentada por el Grupo EH BILDU, sobre la accesibilidad del acceso provisional a la estación de tren de Herrera.**

"Reyes Carrere Zabala, portavoz del grupo municipal EH Bildu, en base a lo dispuesto por el artículo 98 del Reglamento Orgánico del Pleno, presento la siguiente MOCIÓN ORDINARIA sobre la accesibilidad del acceso provisional a la estación de tren de Herrera.

JUSTIFICACIÓN

RENFE erakundea Herrerako tren geltokia berritzen hasi da. Hori dela eta, hegoaldeko sarbidean behin-behineko eskailerak jarri ditu nasara iristeko. Eskailera horiek ez dute bermatzen pertsona ezinduen edota orgatxoekin doazenen irisgarritasuna.

Horiek horrela, EH BILDU udal taldeak honako mozio arrunt hau aurkezten du:

MOZIO ARRUNTA

Donostiako Udalbatzak hertsatuki eskatzen dio RENFE erakundeari berma dezala Herrerako tren geltokiko hegoaldeko nasara sartzeko irisgarritasuna, berritze lanek irauten duten denboran osoan.

Donostian, 2021eko apirilaren 9an

Reyes Carrere Zabala
EH Bildu udal taldearen bozeramalea".

RENFE ha comenzado a renovar la estación de tren de Herrera. Por ello, en el acceso sur ha dispuesto unas escaleras provisionales para acceder al andén. Esas escaleras no garantizan la accesibilidad a las personas discapacitadas o as las que van con sillas de bebés.

Por todo ello, el grupo municipal EH Bildu presenta la siguiente

MOCIÓN ORDINARIA

El Pleno del Ayuntamiento de San Sebastián insta a RENFE a garantizar la accesibilidad al andén sur de la estación de tren de Herrera durante todo el tiempo que duren las obras de reforma.

En San Sebastián, a 9 de abril 2021

Reyes Carrere Zabala,
portavoz del grupo municipal EH Bildu".

Eztabaida hasita, Zigor Etxeburua Urbizu jaunak, D.ª Marta Huarte Paño eta Borja Corominas Fisas jaunak, parte hartu dute puntu honetan, Bilkura Egunerokoan jasotako bileraren grabazioan ageri dena adieraziz.

Abierta la deliberación, intervienen en este punto los/la señores/a D. Zigor Etxeburua Urbizu, D.ª Marta Huarte Paño andreak y D. Borja Corominas Fisas, en los términos que resultan de la grabación de la sesión incorporada al Diario de Sesiones.

**BOZKETAREN EMAITZA:**
**ONARTUA.**
**AHO BATEZ.**

**RESULTADO DE LA VOTACIÓN:**
**APROBADA.**
**UNANIMIDAD.**

---------------

**11. Mozio arrunta, Elkarrekin Donostia taldeak aurkeztua, Domusvi taldearen eskandaluari eta Donostian izandako presentziari buruz.**

“Elkarrekin Donostia udal talde politikoaren bozeramaile Aitzole Araneta naizen honek, Udalbatzaren Araudi Organikoaren 98. artikuluarekin bat etorrita, DOMUSVI TALDEAREN ESKANDALUARI ETA DONOSTIAN DUEN PRESENTZIARI BURUZKOA buruzko honako MOZIO hau aurkezten dut OSOKO BILKURAN eztabaidatua izan dadin.

JUSTIFIKAZIOA

Espainiako zahar etxeen jabe talde handienak, DomusVik, bere diru sarrerak handitu ditu hileta enpresei komisioak kobratuta, hildako adinekoen senideek beren zerbitzuak kontratatzea errazteagatik. Infolibrek argitaratutako informazioaren arabera (Mémora taldearekiko akordioa jasotzen du), 700 euro ere izaten dira. Informazioaren arabera, bi enpresek kontratu bat sinatu zuten 2015erako, eta kontratu hori 2018an berritu zuten.

Donostian DomusVi taldeak kudeatzen dituen bi egoitza daude, Ategorrietako Villa Sacramento egoitza eta Altza auzoko Berra egoitza. Biek dituzte Gipuzkoako Foru Aldundiarekin hitzartutako plazak.

Gure taldekoek uste dugu ezinbestekoa dela argi izatea horrelako jokabideak Donostian ere egin ote dituzten pandemia garaian. Horregatik aurkezten dugu honako

MOZIOA ARRUNTA

**11. Moción ordinaria, presentada por el Grupo Elkarrekin Donostia, sobre el escándalo del Grupo Domusvi y su presencia en Donostia.**

“Aitzole Araneta, Portavoz del Grupo Municipal Elkarrekin Donostia, de acuerdo con el artículo 98 del Reglamento Orgánico del Pleno, presenta la siguiente MOCIÓN PARA SU DEBATE EN EL PLENO, sobre EL ESCÁNDALO DEL GRUPO DOMUSVI Y SU PRESENCIA EN DONOSTIA.

JUSTIFICACIÓN

El mayor grupo de residencias de ancianos de España, DomusVi, ha engrosado sus ingresos con el cobro de comisiones de empresas funerarias por facilitar que los familiares de mayores fallecidos en sus centros contraten sus servicios. Según la información publicada por Infolibre, que recoge un acuerdo con el grupo Mémora, las cantidades llegan a los 700 euros. Según la información, ambas empresas firmaron un contrato en 2015 que más tarde se renovaría en 2018

En Donostia se ubican dos residencias gestionadas por el grupo DomusVi, la residencia de Villa Sacramento situada en Ategorrieta y la residencia de Berra, situada en el barrio de Altza. Ambas cuentan con plazas concertadas con la Diputación Foral de Guipúzcoa.

Desde nuestro grupo, creemos que es imprescindible esclarecer si ese tipo de prácticas se han dado también en nuestra ciudad durante la pandemia, por eso presentamos la siguiente:

MOCIÓN ORDINARIA

1. Donostiako Udalbatzak Gipuzkoako Foru Aldundiari hertsatuki eskatzen dio azter dezala Domus VI-k komisiorik kobratu ote duen Donostian dituen egoitzetako hildakoak ehorztetxe jakin batera eramateagatik.

2. Donostiako Udalbatzak Gipuzkoako Foru Aldundiari hertsatuki eskatzen dio, Domus VIk horrelako komisioak kobratu dituela baieztatuz gero, enpresa horren aurkako neurriak har ditzala, ahalik eta lasterren ken dezala egoitza horietan itundutako plazen kontratua eta jar ditzala abian hildakoen senideei ustez kobratutako dirua itzultzeko mekanismoak.

Donostian, 2021eko apirilaren 9an

Aitzole Araneta Zinkunegi,
Elkarrekin Donostiaren bozeramailea.".

1. El Pleno del Ayuntamiento de Donostia-San Sebastián insta a la Diputación Foral de Gipuzkoa a investigar si Domus VI ha cobrado comisiones por derivar a personas fallecidas en sus centros residenciales de Donostia a alguna funeraria concreta.

2. El Pleno del Ayuntamiento de Donostia-San Sebastián insta a la Diputación Foral de Gipuzkoa a que, si se confirma que Domus VI ha cobrado comisiones de este tipo, tome medidas contra esa empresa, cese a la mayor brevedad la contratación de plazas concertadas en dichas residencias y que ponga en marcha mecanismos para devolver el dinero supuestamente cobrado a los familiares de las personas fallecidas.

Donostia, a 9 de Abril de 2021

Aitzole Araneta Zinkunegi,
Portavoz de Elkarrekin Donostia".

Eztabaida hasita, parte hartu dute puntu honetan Aitzole Araneta Zinkunegi andreak, Jorge Mota Iglesias jaunak, Olaia Duarte López andreak eta Jaione Hervas Saez de Arregi andreak, Bilkura Egunerokoan jasotako bileraren grabazioan ageri dena adieraziz.

Abierta la deliberación, intervienen en este punto el/las Señor/as D.ª Aitzole Araneta Zinkunegi, D. Jorge Mota Iglesias, D.ª Olaia Duarte Lopez y D.ª Jaione Hervás Sáez de Arregi, en los términos que resultan de la grabación de la sesión incorporada al Diario de Sesiones.

**EAJ/PNV ETA PSE-EE TALDEEK 11. GAIARI AURKEZTUTAKO ZUZENKETAREN BOZKETA / VOTACIÓN DE LA ENMIENDA AL ASUNTO N.º 11 PRESENTADA POR LOS GRUPOS EAJ/PNV Y PSE-EE:**

**BOZKETAREN EMAITZA:**
**ONARTUA.**
**GEHIENGOA.**
**ALDEKO BOTOAK: 17 – (9) EAJ-PNV, (5) PSE-EE, (3) PP.**
**AURKAKO BOTOAK: 0**

**RESULTADO DE LA VOTACIÓN:**
**APROBADA.**
**MAYORÍA.**
**VOTOS A FAVOR: 17 – (9) EAJ-PNV, (5) PSE-EE, (3) PP.**
**VOTOS EN CONTRA: 0**

**ABSTENTZIOAK: 8 - (4) EH BILDU, (3) ELKARREKIN DONOSTIA, (1) EH BILDU PLENO ARETOAN EZ EGOTEAGATIK.**

**ABSTENCIONES: 8 - (4) EH BILDU, (3) ELKARREKIN DONOSTIA, (1) EH BILDU POR HABERSE AUSENTADO DE LA SALA.**

**11. GAIAREN BOZKETA / VOTACIÓN DEL ASUNTO N.º 11:**

**BOZKETAREN EMAITZA:**
**ONARTUA.**
**GEHIENGOA.**
**ALDEKO BOTOAK: 20 – (9) EAJ-PNV, (5) PSE-EE, (3) PP, (3) ELKARREKIN DONOSTIA.**
**AURKAKO BOTOAK: 0**
**ABSTENTZIOAK: 5 - EH BILDU, 1 PLENO ARETOAN EZ EGOTEAGATIK.**

**RESULTADO DE LA VOTACIÓN:**
**APROBADA.**
**MAYORÍA.**
**VOTOS A FAVOR: 20 – (9) EAJ-PNV, (5) PSE-EE, (3) PP, (3) ELKARREKIN DONOSTIA.**
**VOTOS EN CONTRA: 0**
**ABSTENCIONES: 5 - EH BILDU, 1 POR HABERSE AUSENTADO DE LA SALA.**

**HARTUTAKO ERABAKIAREN BEHIN BETIKO TESTUAREN EGIAZTAGIRIA:**

**CERTIFICADO DEL TEXTO DEFINITIVO DEL ACUERDO ADOPTADO:**

Udalbatzak, bi mila eta hogeita bateko apirilaren hogeita bederatzian izan zuen osoko bilera ohikoan, Elkarrekin Donostia taldeak Domusvi taldearen eskandaluaz eta hura Donostian izateaz aurkeztutako mozio arrunt hau onartu zuen, EAJ/PNV eta PSE-EE taldeek elkarren artean aurkeztutako zuzenketa bat eginda (erabaki zatiko 1. puntua eta 2.a aldatzea). Horrenbestez, hauxe da azkenean onartutako testua:

Que el Excelentísimo Ayuntamiento Pleno en Sesión Ordinaria celebrada el día veintinueve de abril de dos mil veintiuno, aprobó la siguiente Moción Ordinaria, presentada por el Grupo Elkarrekin Donostia, sobre el escándalo del Grupo Domusvi y su presencia en Donostia, que incorpora una enmienda conjunta aprobada, presentada por los Grupos EAJ/PNV y PSE-EE, de sustitución del punto nº1 y nº2 de la parte resolutiva, siendo el texto definitivamente aprobado el siguiente:

*“Espainiako zahar etxeen jabe talde handienak, DomusVik, bere diru sarrerak handitu ditu hileta enpresei komisioak*

*“El mayor grupo de residencias de ancianos de España, DomusVi, ha engrosado sus ingresos con el cobro de comisiones de*

*kobratuta, hildako adinekoen senideek beren zerbitzuak kontratatzea errazteagatik. Infolibrek argitaratutako informazioaren arabera (Mémora taldearekiko akordioa jasotzen du), 700 euro ere izaten dira. Informazioaren arabera, bi enpresek kontratu bat sinatu zuten 2015erako, eta kontratu hori 2018an berritu zuten.*

*empresas funerarias por facilitar que los familiares de mayores fallecidos en sus centros contraten sus servicios. Según la información publicada por Infolibre, que recoge un acuerdo con el grupo Mémora, las cantidades llegan a los 700 euros. Según la información, ambas empresas firmaron un contrato en 2015 que más tarde se renovaría en 2018*

*Donostian DomusVi taldeak kudeatzen dituen bi egoitza daude, Ategorrietako Villa Sacramento egoitza eta Altza auzoko Berra egoitza. Biek dituzte Gipuzkoako Foru Aldundiarekin hitzartutako plazak.*

*En Donostia se ubican dos residencias gestionadas por el grupo DomusVi, la residencia de Villa Sacramento situada en Ategorrieta y la residencia de Berra, situada en el barrio de Altza. Ambas cuentan con plazas concertadas con la Diputación Foral de Guipúzcoa.*

*Gure taldekoek uste dugu ezinbestekoa dela argi izatea horrelako jokabideak Donostian ere egin ote dituzten pandemia garaian. Horregatik aurkezten dugu honako*

*Desde nuestro grupo, creemos que es imprescindible esclarecer si ese tipo de prácticas se han dado también en nuestra ciudad durante la pandemia, por eso presentamos la siguiente:*

*MOZIOA ARRUNTA*

*1.- Donostiako Udalbatzak Gipuzkoako Foru Aldundiari hertsatuki eskatzen dio Foru-ikuskaritzak berrikus ditzala egoitza-zentroek dituzten heriotza-protokoloak, espreski jaso dezaten senitartekoek askatasunez izendatuko dutela zer ehorztetxek emango dituen zerbitzuak un ea iristen denean.*

*2.- Donostiako Udalbatzak Gipuzkoako Foru Aldundiari hertsatuki eskatzen dio protokoloak berrikusterakoan irregulartasunen bat aurkituko balu, ofizioz joka dezala horren kontra". ================================*

*MOCIÓN ORDINARIA*

*1.- El Pleno del Ayuntamiento de San Sebastián insta a la Diputación Foral de Gipuzkoa a que por parte de la Inspección Foral se revisen los protocolos de defunción de los centros residenciales para que expresamente reflejen la libre designación por parte de las familias de la funeraria que prestará los servicios cuando así sea necesario.*

*2.- El Pleno del Ayuntamiento de San Sebastián insta a la Diputación Foral de Gipuzkoa a que en caso de que en la revisión de los protocolos detectara alguna irregularidad, actue de oficio contra la misma". =======================*

Eta horrela jasota gera dadin eta

Y para que así conste y surta los

dagozkion ondorioak izan ditzan, **Egiaztagiri** hau egin, izenpetu eta zigilatu dut, Alkatetzak aginduta eta onetsita, Donostian, bi mila eta hogeita bateko maiatzaren bostean.

efectos procedentes, expido, firmo y sello esta **Certificación**, visada por la Alcaldía y de su orden en la ciudad de San Sebastián, a cinco de mayo de dos mil veintiuno.

ALKATEAK O. E. /
V. º B. º DEL ALCALDE,

Eneko Goia Laso

---------------

**12. Mozio arrunta, EH BILDU taldeak aurkeztua, Covid19-aren ondorioz bizi dugun krisi sozio-ekonomikoak pertsonengan eragindako osasun mentaleko arazoak detektatzeko eta artatzeko beharra dela eta.**

“EH BILDU udal taldeko bozeramaile Reyes Carrere Zabalak, Udalbatzaren Organo Araudiko 98. artikulua oinarri, honako MOZIO ARRUNT hau aurkezten du, COVID19-ak eragindako osasun mental eta emozionaleko arazoak direla eta.

JUSTIFIKAZIOA

Osasun alarma egoera hasi zenetik, urtebete pasatu den honetan, Euskal Herriko Unibertsitateak, Espainiako estatuko hainbat unibertsitaterekin batera, eta nazioarteko adituek egindako "Covid-19ren eta konfinamenduaren ondorio psikologikoak" azterlanean herritarren osasun mentala zaintzeko kontuan hartu beharreko neurri eta gomendioen proposamena egiten dute.

**12. Moción ordinaria, presentada por el Grupo EH BILDU, sobre la necesidad de detectar y atender los problemas de salud mental causados en las personas por la crisis socio-económica que vivimos como consecuencia del Covid19.**

“Reyes Carrere Zabala, portavoz del grupo municipal EH BILDU, en base al artículo 98 del Reglamento Orgánico del Pleno, presento la siguiente MOCION ORDINARIA sobre los problemas de salud mental y emocional derivados de la COVID-19.

JUSTIFICACIÓN

Transcurrido un año desde el inicio de la situación de alarma sanitaria, la Universidad del País Vasco, junto con diversas universidades del Estado español, y en marco del estudio Implicaciones psicológicas de la COVID-19 y del confinamiento, realizado por expertas y expertos internacionales, proponen ciertas medidas y recomendaciones a tener en cuenta para preservar la salud mental de la población.

Izan ere, SARS-CoV-2 koronabirusak eragindako pandemiak aldaketak eragin ditu gure ohitura eta jokabide sozialetan, elkarreraginean, pertsonen bizimoduan, eta ondorio psikologikoak ere eragin ditu herritarrengan.

De hecho, la pandemia provocada por el coronavirus SARS-CoV-2 ha producido cambios en nuestras costumbres y comportamientos sociales, en la interacción, en la vida de las personas, así como secuelas psicológicas para la ciudadanía.

Azterlanak adierazten du kontuan hartu behar dela konfinamenduaren eta osasun-krisiaren ondorio psikologikoak denboran atzeratuta ager daitezkeela eta kronifikatzeko joera izan dezaketela, trauma-osteko estresaren ibilbidean ohikoa den bezala, bai eta COVID-19ren krisiaren nazioarteko testuinguruan ikusi diren berrogeialdi-neurriekin lotutako beste patologia batzuk ere. Funtsezko datu bat hau da: psikofarmakoen preskripzioa areagotu egin da (pandemia hasi aurretik agindutakoen bikoitza baino gehiago); batez ere antsiolitikoak, antidepresiboak eta lo-eragileak, eta tratamenduaren iraupena hiru hilabetetik gorakoa dutenak.

El estudio indica que hay que tener en cuenta que los efectos psicológicos del confinamiento y la crisis sanitaria pueden aparecer posteriormente en el tiempo y presentar tendencia a la cronificación, como es habitual en el curso del estrés postraumático, así como otras patologías relacionadas con las medidas de cuarentena que se han visto en el contexto internacional de la crisis del COVID-19. Un dato fundamental es los aumentos de la prescripción de psicofármacos (más del doble de los prescritos antes del inicio de la pandemia), principalmente ansiolíticos, antidepresivos y somníferos, con una duración de tratamiento superior a tres meses.

Gauzak horrela, EHUk argitaratutako ikerketak hainbat gomendio proposatzen dizkie erakunde publikoei, haien artean:

Así las cosas, la investigación publicada por la UPV propone una serie de recomendaciones a las instituciones públicas, entre ellas:

• Prebentzio-jarduerei koherentzia emango dieten jarduketa-plan integralak egitea, hainbat eragilek izan ditzaketen ekintza deskoordinatuen aurrean.

• Elaborar planes integrales de actuación que den coherencia a las actividades preventivas, frente a acciones descoordinadas que puedan ofertarse desde distintos agentes.

• Komenigarria da herritar guztiei zuzendutako informazio-kanpainak egitea, laguntza psikologiko profesionala behar dela adieraz dezaketen seinaleak identifikatzen irakasteko.

• Es recomendable realizar campañas informativas dirigidas al conjunto de la población, destinadas a enseñar a identificar señales que puedan indicar la necesidad de ayuda psicológica profesional.

• Arrisku-kasuen jarraipena egiteko azterlanak egitea gomendatzen da, ondoez emozionalaren eta sintoma espezifikoen denbora-bilakaerari buruzko informazioa

• Se aconseja la realización de estudios de seguimiento de casos de riesgo que proporcionen información sobre la evolución temporal del malestar emocional y de los síntomas

izateko.

• Orain arte, osasun mentaleko arretan atendituta zeuden pertsonen larriagotze psikologikoa prebenitzeko ekintzak ezartzea gomendatzen da, testuinguru komunitarioa kontuan hartuz eta herritarren sare sozialaren barruan jarduteko fokuak detektatuz.

• Osasun mentalean espezializatutako osasun-sistemako zerbitzuak eta baliabideak ikerketa-zentroetako taldeekin integratzea gomendatzen da, metodologiaren eta laguntza klinikoaren konbinazioan sinergiak emateko.

• Gomendagarria da langile gehiago ematea arreta psikologiko koalifikaturako, etorkizun hurbilean laguntza psikologikoaren premia handiagoa izatea aurreikusten den leku kritikoetan: zentro geriatrikoak, zainketa intentsiboetako unitateak, lehen mailako arretako zentroak eta ikastetxeak, besteak beste.

Donostiako Udalak hainbat programa ditu pertsonen ongizate emozional eta psikologikoari begira; esate baterako, Donostia Lagunkoia programaren baitan adineko pertsonen isolamendua gainditzeko hainbat neurri, genero indarkeriaren biktimei zuzenduriko arreta psikologikoa eta familiekin oro har zein urgentziazko egoeretan Gizarte-ekintzako profesionalek eskaintzen duten kontentzio emozionala. Adituen iritziz, berez lehendik arreta psikosoziala behar zuten pertsonek eta kolektibo zaurgarriak haien egoera kaltetua ikusi dezakete Covid-19ren eta konfinamenduaren ondorio psikologikoen eraginez eta interbentzioak egoera berrira adaptatu beharra dago.

Horiek horrela, EH BILDU udal taldeak honako mozio arrunt hau aurkezten du:

específicos.

• Se recomienda implementar acciones para prevenir la el agravamiento psicológico de las personas atendidas hasta ahora en la atención de salud mental. Los ámbitos de prevención han de abarcar el contexto comunitario, detectando focos de actuación dentro de la red social de la ciudadanía.

• Se aconseja la integración de servicios y recursos del sistema sanitario especializado en salud mental junto a equipos de los centros de investigación, que proporcionen sinergias en la combinación de metodología y asistencia clínica.

• Es recomendable dotar de más personal para la atención psicológica cualificada en lugares críticos donde se prevé que exista en el futuro próximo mayor necesidad de apoyo psicológico:centros geriátricos, unidades de cuidados intensivos, centros de atención primaria y centros educativos, entre otros.

El Ayuntamiento de San Sebastián cuenta con diversos programas orientados al bienestar emocional y psicológico de las personas, como son las medidas para superar el aislamiento de las personas mayores dentro del programa Donostia Lagunkoia, la atención psicológica a las víctimas de violencia de género y la contención emocional que ofrecen las y los profesionales de Acción Social con las familias, en general, y en situaciones de emergencia. Según las personas expertos, las personas que ya necesitaban atención psicosocial y los colectivos vulnerables pueden ver afectada su situación por las consecuencias psicológicas de la COVID-19 y el confinamiento, y es necesario adaptar las intervenciones a la nueva situación.

Por todo ello, el grupo municipal EH Bildu presenta la siguiente

MOZIO ARRUNTA

• Donostiako Udalbatzak hertsatuki eskatzen dio Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailari, Covid-19ren eta konfinamenduaren ondorio psikologikoak kontuan hartzen dituen jarduketa-plan integral bat abiatu dezala, Donostiako Udalarekin batera, eskaintzen dituen baliabide soziosanitarioetan eta arreta psikosozialean ikuspegi hau txertatzeko.

• Donostiako Udalbatzak hertsatuki eskatzen dio Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailari, Covid-19ren eta konfinamenduaren ondorio psikologikoak kontuan hartzen dituen formazio programa bat eta praktika onen gida liburua argitaratu dezala, arreta psikosoziala eskaintzen duten profesionalek baliabideak izan ditzaten bizi dugun egoera soziosanitario berriaren aurrean.

Donostian, 2021eko apirilaren 9an

Reyes Carrere Zabala
EH Bildu udal taldearen bozeramalea".

MOCIÓN ORDINARIA

• El Pleno del Ayuntamiento de San Sebastián insta al Departamento de Salud del Gobierno Vasco a poner en marcha, en colaboración con el Ayuntamiento de San Sebastián, un plan integral de actuación que contemple las consecuencias psicológicas de la COVID-19 y del confinamiento para incorporar esta visión en los recursos sociosanitarios y de atención psicosocial que oferta.

• El Pleno del Ayuntamiento de San Sebastián insta al Departamento de Salud del Gobierno Vasco a que ponga en marcha un programa de formación que tenga en cuenta las consecuencias psicológicas de la COVID-19 y del confinamiento y a que publique una guía de buenas prácticas para que las personas profesionales de la atención psicosocial puedan disponer de recursos ante la nueva situación sociosanitaria que vivimos.

En San Sebastián, a 9 de abril 2021

Reyes Carrere Zabala,
portavoz del grupo municipal EH Bildu".

Eztabaida hasita, parte hartu dute puntu honetan Olaia Duarte Lopez andreak, Marta Huarte Paño andreak, Borja Corominas Fisas jaunak, Duñike Agirrezabalaga Ugarte andreak eta Jaione Hervas Saez de Arregi andreak, Bilkura Egunerokoan jasotako bileraren grabazioan ageri dena adieraziz.

Abierta la deliberación, intervienen en este punto el/las Señor/as D.ª Olaia Duarte López, D.ª Marta Huarte Paño, D. Borja Corominas Fisas, D.ª Duñike Agirrezabalaga Ugarte y D.ª Jaione Hervás Sáez de Arregi, en los términos que resultan de la grabación de la sesión incorporada al Diario de Sesiones.

**BOZKETAREN EMAITZA:**
**BAZTERTUA.**
**GEHIENGOA.**
**ALDEKO BOTOAK: 12 – (6) EH BILDU, (3)**

**RESULTADO DE LA VOTACIÓN:**
**RECHAZADA.**
**MAYORÍA.**
**VOTOS A FAVOR: 12 – (6) EH BILDU, (3)**

**PP, (3), ELKARREKIN DONOSTIA.**
**AURKAKO BOTOAK: 14 – (9) EAJ/PNV, (5) PSE-EE.**
**ABSTENTZIOAK: 0.**

**PP, (3), ELKARREKIN DONOSTIA.**
**VOTOS EN CONTRA: 14 – (9) EAJ/PNV, (5) PSE-EE.**
**ABSTENCIONES: 0.**

---------------

**II.2**

**KONTROL MOZIOAK**

**II.2**

**MOCIONES DE CONTROL**

**II.2.1. Kontrol mozioa, PP taldeak aurkeztua, Donostiako ostalaritzari emandako laguntzei buruzkoa.**

“Talde Popularreko zinegotzi Mikel Lezama Zubeldia naizen honek, Udalbatzaren Araudi Organikoaren 94. artikulua oinarri, Donostian ostalaritzari emandako laguntzei buruzko KONTROL MOZIO hau aurkezten dut, Gune Publikoetako Batzordean (Obrak eta Hiri Zerbitzuak) azterturiko interpelazioaren ondorioz.

JUSTIFIKAZIOA

Pandemia sektore gehienetan eragiten ari da. Horren ondorioak gehien pairatzen ari den sektoreetako bat ostalaritzarena da. Erakundeek hartu dituzten neurriek ostalariak EZ LAN EGITERA behartzen zituzten, beren establezimenduetan kutsadura sortzen ari zela aldeztuta. Neurri hori egokia den ala ez alde batera utzita, langile baten lan jarduera mugatzen den unetik eta enpresaburuak bere enpresa jarduera garatzeko duen eskubidea galarazten den unetik, konpentsazio bat izan beharko luke.

Ostalaritzarako laguntza horien irismenari

**II.2.1. Moción de control, presentada por el Grupo PP, sobre las ayudas a la hostelería de San Sebastián.**

“Mikel Lezama Zubeldia, concejal del Grupo Popular, al amparo del vigente artículo 94 del Reglamento Orgánico del Pleno, presenta la siguiente MOCIÓN DE CONTROL, como consecuencia de la interpelación presentada en la Comisión de Espacio Público, Obras y Servicios Urbanos, sobre las ayudas a la hostelería de San Sebastian.

JUSTIFICACIÓN

Eztabaida hasita, Zigor Etxeburua Urbizu jaunak, Haizea Garay Gallastegui andreak, Jorge Mota Iglesias jaunak eta Mª Jesus Idoeta Madariaga andreak parte hartu dute puntu honetan, Bilkura Egunerokoan jasotako bileraren grabazioan ageri dena adieraziz.

Abierta la deliberación, intervienen en este punto los/las señores/as D. Zigor Etxeburua Urbizu, D.ª Haizea Garay Gallastegui, D. Jorge Mota Iglesias y D.ª Mª Jesús Idoeta Madariaga, en los términos que resultan de la grabación de la sesión incorporada al Diario de Sesiones.

**HALA ESKATU DUTENEZ, BOZKETA PUNTUKA EGITEA ONARTU DA / PREVIA SOLICITUD, SE ACCEDE A LA VOTACIÓN POR PUNTOS:**

**7. KONTROL MOZIOAREN 1. PUNTUAREN BOZKETA / VOTACIÓN DEL PUNTO N.º 1 DE LA MOCIÓN DE CONTROL N.º 7:**

**BOZKETAREN EMAITZA:**
**BAZTERTUA.**
**GEHIENGOA.**
**ALDEKO BOTOAK: 9 – (6) EH BILDU, (3) ELKARREKIN DONOSTIA.**
**AURKAKO BOTOAK: 17 – (9) EAJ/PNV, (5) PSE-EE, (3) PP.**
**ABSTENTZIOAK: 0.**

**RESULTADO DE LA VOTACIÓN:**
**RECHAZADO.**
**MAYORÍA.**
**VOTOS A FAVOR: 9 – (6) EH BILDU, (3) ELKARREKIN DONOSTIA.**
**VOTOS EN CONTRA: 17 – (9) EAJ/PNV, (5) PSE-EE, (3) PP.**
**ABSTENCIONES: 0.**

**7. KONTROL MOZIOAREN 2. PUNTUAREN BOZKETA / VOTACIÓN DEL PUNTO N.º 2 DE LA MOCIÓN DE CONTROL N.º 7:**

**BOZKETAREN EMAITZA:**
**ONARTUA.**
**AHO BATEZ.**

**RESULTADO DE LA VOTACIÓN:**
**APROBADO.**
**UNANIMIDAD.**

**7. KONTROL MOZIOAREN 3. PUNTUAREN BOZKETA / VOTACIÓN DEL PUNTO N.º 3 DE LA MOCIÓN DE CONTROL N.º 7:**

**BOZKETAREN EMAITZA:**
**BAZTERTUA.**
**GEHIENGOA.**
**ALDEKO BOTOAK: 9 – (6) EH BILDU, (3) ELKARREKIN DONOSTIA.**
**AURKAKO BOTOAK: 17 – (9) EAJ/PNV, (5) PSE-EE, (3) PP.**
**ABSTENTZIOAK: 0.**

**RESULTADO DE LA VOTACIÓN:**
**RECHAZADO.**
**MAYORÍA.**
**VOTOS A FAVOR: 9 – (6) EH BILDU, (3) ELKARREKIN DONOSTIA.**
**VOTOS EN CONTRA: 17 – (9) EAJ/PNV, (5) PSE-EE, (3) PP.**
**ABSTENCIONES: 0.**

---------------

**II.2.8. Kontrol mozioa, EH BILDU taldeak aurkeztua, Easo plazan gazte baten atxiloketari buruzkoa.**

“Reyes Carrere Zabala EH Bildu udal taldeko zinegotziak, Udalbatzaren Organo Araudiko 98. artikulua oinarri, honako kontrol mozio hau aurkezten du Udalbatzan azter dadin. Mozioa Gune Publiko, Obra eta Zerbitzuen Batzordean 2021eko apirilaren 19an aurkeztutako interpelazioaren ondorioa da.

JUSTIFIKAZIOA

Apirilaren 8an twitter sare sozialaren bidez bideo bat zabaldu da Easo Plazan gertatutako gazte baten atxiloketaren inguruan. Bideoan lau udaltzain ikusten dira gaztea atxilotzen eta indarra erabiltzen, mutila ahuspez lurrean etzanda dagoen bitartean.

**II.2.8. Moción de control, presentada por el Grupo EH BILDU, relativa a la detención de un joven en la plaza Easo.**

“Reyes Carrere Zabala, concejala del grupo municipal EH Bildu, al amparo del artículo 98 del Reglamento Orgánico del Pleno, presento la siguiente MOCIÓN DE CONTROL, para que sea tratada en la sesión plenaria. La presente moción trae causa de la interpelación sustanciada ante en la Comisión de Espacios Públicos, Obras y Servicios el 19 de abril del 2021.

JUSTIFICACIÓN

El 8 de abril a través de la red social de Twitter se ha emitido un vídeo sobre la detención de una persona joven en la plaza Easo. En el vídeo se ven cuatro policías municipales deteniendo al joven y ejerciendo la fuerza mientras el chico está tumbado bocabajo en el

Inguruan zeuden pertsonen testigantzen arabera, segurtasun agenteek erabilitako indarra neurriz kanpokoa izan zen. Nekez uler daiteke, Udaltzaingoaren eginkizun nagusia herritarrei laguntzea izanik, administrazio-delitu soil batek, kasu honetan identifikatzeko NANa ez izateak, horrelako ekintza bat eragin izana. Lau orduko atxiloketaren ostean, gaztea aske utzi zuten udaltzain bati ustez eraso egin izaneko salaketarekin eta aldi berean, hemezortzi urteko gazte honek berak jarri du inplikatutako udaltzainen aurkako salaketa, lesioak, legez kanpoko atxiloketa eta salaketa faltsua argudiatuz. Beraz, bi bertsio kontrajarri daude, argitu beharrekoak lehenbailehen.

Herritarren Segurtasunerako zinegotziak batzordean honi buruz interpelatua izan zenean, argitu zuen aipatutako atxilotua ez zela adingabea, 18 urte baititu. Baina ez zuen azaldu, ordea, zergaitik erabili zuten hain jarrera oldarkorra gaztearekiko, sareetako bideoan ikus daitekeen moduan.

Era berean, ez zuen argitu erabili zuten immobilizazio-teknikaren arrazoiaren azalpena, hain arriskutsua eta kritikatua gaur egun, George Floyd gazte estatubatuarraren atxiloketaren eta heriotzaren ondorioz, non poliziaren belaunak gaztearen bizkarrean eta lepoan jartzearen ondorioz, arnasa hartzea eragozten dion eta bere osasuna arriskuan jartzen duen.

Horiek horrela, honako hau da behean sinatzen duen zinegotziak aurkeztutako KONTROL MOZIOA:

1. Donostiako Udalbatzak hertsiki eskatzen dio Udal Gobernuari Udaltzaingoaren esku-hartze

suelo.

Según los testimonios de las personas presentes la zona, la fuerza ejercida por los agentes de seguridad fue desproporcionada. Difícilmente se puede entender que, siendo la función principal de la Policía Municipal la de ayudar a la ciudadanía, un simple delito administrativo, en este caso, no tener el DNI para identificarse, haya provocado una acción de este tipo. Tras cuatro horas de detención, el joven fue puesto en libertad con la denuncia de supuesta agresión a un agente de la policía, y, simultáneamente, este joven de dieciocho años ha interpuesto denuncia contra los agentes implicados, alegando lesiones, detención ilegal y falsa denuncia. Por lo tanto, estamos ante dos versiones contrapuestas que conviene aclarar cuanto antes.

El concejal de Seguridad Ciudadana, interpelado al respecto en comisión, aclaró que el citado detenido no era menor de edad, ya que tiene 18 años. Pero no explicó por qué mantuvieron una actitud tan agresiva con el joven, como puede verse en el video de las redes.

Tampoco aclaró la explicación de la razón por la que hicieron uso de la técnica de inmovilización que utilizaron, tan peligrosa y criticada en la actualidad, como consecuencia de la detención y la muerte del joven estadounidense George Floyd, en la que la rodilla del policía le impide respirar y pone en peligro su salud.

Por todo ello, la concejala que suscribe presenta la siguiente MOCIÓN DE CONTROL

1. El Pleno del Ayuntamiento de San Sebastián insta al Gobierno municipal a eliminar del

protokolotik kanpo utz dezala pertsona bati lurrean ahuspez jarrita eta belaunarekin lepoan eta/edo bizkarrean presioa egiten zaion teknikaren aplikazioa, bai eta atxilotuaren osasuna arriskuan jartzen duen beste edozein atxiloketa-teknika ere.

2. Donostiako Udalbatzak hertsiki eskatzen dio Udal Gobernuari martxoaren 8ko Easo plazako gertakariei buruzko barruko espediente informatibo bat ireki dezala, inplikatutako udaltzainen jarduera zuzena izan den ala ez jakiteko.

3. Donostiako Udalbatzak hertsiki eskatzen dio Udal Gobernuari argitara ditzala Udaltzaingoak bere jarduerarako finkatuta dituen jarduera-protokoloak, etorkizunean herritarrek argi eta garbi izan dezaten non dauden Udaltzaingoak bere jardueran errespetatu behar dituen mugak.

Donostia, 2021ko apirilaren 23an

Reyes Carrere Zabala
EHBIldu taldeko zinegotzia".

protocolo de intervención de la Policía Municipal la aplicación de la técnica que consiste en presionar a una persona tendida en el suelo con la rodilla en el cuello y/o en la espalda, así como cualquier otra técnica de detención que ponga en peligro la salud de la persona detenida.

2. El Pleno del Ayuntamiento de San Sebastián insta al Gobierno municipal a incoar un expediente informativo interno sobre los hechos ocurridos en la plaza Easo el 8 de marzo, con el fin de averiguar si la actuación de los miembros de la Policía Municipal implicados ha sido correcta o no.

3. El Pleno del Ayuntamiento de San Sebastián insta al Gobierno municipal a que publique los protocolos de actuación establecidos por la Policía Municipal para el ejercicio de su actividad, con el fin de que en el futuro la ciudadanía tenga claros los límites que la Policía Municipal debe respetar en su actividad.

En San Sebastián, a 23 de abril de 2021

Reyes Carrere Zabala,
concejala del grupo municipal EH Bildu”.

Eztabaida hasita, Reyes Carrere Zabala andreak, Aitzole Araneta Zinkunegi andreak, Borja Corominas Fisas jaunak eta Martin Ibabe Eceiza jaunak parte hartu dute puntu honetan, Bilkura Egunerokoan jasotako bileraren grabazioan ageri dena adieraziz.

Abierta la deliberación, intervienen en este punto los/las señores/as D.ª Reyes Carrere Zabala, D.ª Aitzole Araneta Zinkunegi, D. Borja Corominas Fisas y D. Martin Ibabe Eceiza, en los términos que resultan de la grabación de la sesión incorporada al Diario de Sesiones.

**HALA ESKATU DUTENEZ, BOZKETA PUNTUKA EGITEA ONARTU DA / PREVIA SOLICITUD, SE ACCEDE A LA VOTACIÓN POR PUNTOS:**

**8. KONTROL MOZIOAREN 1. PUNTUAREN BOZKETA / VOTACIÓN DEL PUNTO N.º 1 DE LA MOCIÓN DE CONTROL N.º 8:**

| | |
|---|---|
| **BOZKETAREN EMAITZA:** | **RESULTADO DE LA VOTACIÓN:** |
| **BAZTERTUA.** | **RECHAZADO.** |
| **GEHIENGOA.** | **MAYORÍA.** |
| **ALDEKO BOTOAK: 6 – EH BILDU.** | **VOTOS A FAVOR: 6 – EH BILDU.** |
| **AURKAKO BOTOAK: 17 – (9) EAJ/PNV, (5) PSE-EE, (3) PP.** | **VOTOS EN CONTRA: 17 – (9) EAJ/PNV, (5) PSE-EE, (3) PP.** |
| **ABSTENTZIOAK: 3 – ELKARREKIN DONOSTIA.** | **ABSTENCIONES: 3 – ELKARREKIN DONOSTIA.** |

**8. KONTROL MOZIOAREN 2. PUNTUAREN BOZKETA / VOTACIÓN DEL PUNTO N.º 2 DE LA MOCIÓN DE CONTROL N.º 8:**

| | |
|---|---|
| **BOZKETAREN EMAITZA:** | **RESULTADO DE LA VOTACIÓN:** |
| **BAZTERTUA.** | **RECHAZADO.** |
| **GEHIENGOA.** | **MAYORÍA.** |
| **ALDEKO BOTOAK: 9 – (6) EH BILDU, (3) ELKARREKIN DONOSTIA.** | **VOTOS A FAVOR: 9 – (6) EH BILDU, (3) ELKARREKIN DONOSTIA.** |
| **AURKAKO BOTOAK: 17 – (9) EAJ/PNV, (5) PSE-EE, (3) PP.** | **VOTOS EN CONTRA: 17 – (9) EAJ/PNV, (5) PSE-EE, (3) PP.** |
| **ABSTENTZIOAK: 0.** | **ABSTENCIONES: 0.** |

**8. KONTROL MOZIOAREN 3. PUNTUAREN BOZKETA / VOTACIÓN DEL PUNTO N.º 3 DE LA MOCIÓN DE CONTROL N.º 8:**

| | |
|---|---|
| **BOZKETAREN EMAITZA:** | **RESULTADO DE LA VOTACIÓN:** |
| **BAZTERTUA.** | **RECHAZADO.** |
| **GEHIENGOA.** | **MAYORÍA.** |
| **ALDEKO BOTOAK: 9 – (6) EH BILDU, (3) ELKARREKIN DONOSTIA.** | **VOTOS A FAVOR: 9 – (6) EH BILDU, (3) ELKARREKIN DONOSTIA.** |
| **AURKAKO BOTOAK: 17 – (9) EAJ/PNV, (5) PSE-EE, (3) PP.** | **VOTOS EN CONTRA: 17 – (9) EAJ/PNV, (5) PSE-EE, (3) PP.** |
| **ABSTENTZIOAK: 0.** | **ABSTENCIONES: 0.** |

---------------

**II.2.10. Kontrol mozioa, EH BILDU taldeak aurkeztua, udan jaietako krisi-mahaia aktibatzeari buruzkoa.**

“Reyes Carrere Zabala EH Bildu udal taldeko zinegotziak, Udalbatzaren Organo Araudiko 98. artikulua oinarri, honako kontrol mozio hau aurkezten du Udalbatzan azter dadin. Mozioa Pertsonen Zerbitzuen Batzordean 2021eko apirilaren 19an aurkeztutako interpelazioaren ondorioa da.

JUSTIFIKAZIOA

2008. urtetik aurrera, Donostiako Udaleko Berdintasun Sailak, uztailetik irailera, sexu erasoen aurkako sentsibilizazio-kanpainak egin izan ditu Donostiako herritar guztientzat zein bisitarientzat. Zoritxarrez, 2020an, COVID19k eragindako pandemiak, Udalak programatutako jai guztiak bertan behera uztea ekarri zuen, eta Berdintasun Sailak, horren ondorioz, udako sexu erasoean kontrako kanpaina ez zuen aktibatu ere egin.

Urtebete daramagu pandemian, erabateko ziurgabetasunean murgilduta, eta egoera oso aldakorrean, kutsadura-indizeen gorabeherek gure egunerokotasuna etengabe markatzen dute… Hainbat mailatako konfinamenduak, osasun-neurriak, muga perimetralen aldaketak, elkartzeko debekuak… Ondorioz, oso zaila egiten zaigu udako agertoki zehatz bat irudikatzea. Gainera, kutsatze gorakada bete-betean, ziurgabetasun egoerari gehitu behar zaio Espainiako Gobernuko presidenteak iragarri duela alarma egoera maiatzaren 9an altxatuko duela.

Beraz, eszenatoki desberdinak aurreikusi dira,

**II.2.10. Moción de control, presentada por el Grupo EH BILDU, relativa a que se active en verano la mesa de crisis para las fiestas.**

“Reyes Carrere Zabala, concejala del grupo municipal EH Bildu, al amparo del artículo 98 del Reglamento Orgánico del Pleno, presento la siguiente MOCIÓN DE CONTROL, para que sea tratada en la sesión plenaria. La presente moción trae causa de la interpelación sustanciada ante en la Comisión de Servicios a las Personas el 19 de abril del 2021.

JUSTIFICACIÓN

2008. A partir de este año, el Área de Igualdad del Ayuntamiento de San Sebastián ha llevado a cabo, entre julio y septiembre, campañas de sensibilización contra las agresiones sexuales destinadas tanto a la ciudadanía donostiarra como a las personas visitantes. Lamentablemente, en el año 2020 la pandemia provocada por el COVID-19 originó la anulación de todas las fiestas programadas por el Ayuntamiento, por lo que el Departamento de Igualdad no activó la campaña en contra del acoso sexual durante el verano.

Llevamos un año en pandemia, inmersos en una incertidumbre total, y en una situación muy cambiante, las fluctuaciones de los índices de contagio marcan constantemente nuestro día a día… Confinamientos a distinto nivel, medidas sanitarias, cambios de límites perimetrales, prohibiciones de asociación, etc. Por tanto, nos resulta muy difícil imaginar un escenario concreto para el verano. Además, en pleno auge de los contagios, a la situación de incertidumbre hay que añadir que el presidente del Gobierno español ha anunciado que el 9 de mayo levantará el estado de alarma.

Por lo tanto, se han previsto escenarios

eta norberak udako aisialdiarekin zerikusia duten erabakiak ia momentuan bertan hartu beharko ditu: bidaiatu edo ez bidaiatu, jaiak izan edo ez, jai-ekitaldi batera joan ala ez, hiru edo bost lagunekin afaldu, hondartza, mendia eta abar.

Baina, bai, aurreikustekoa da, Udal Gobernuak Aste Nagusiari eta gainerako jaiei buruz hartuko duen erabakia alde batera utzita, iaz bezala, hondartzek eta eguraldi onak erakarrita jende asko pilatuko dela Donostian. Eta zoritxarrez, aurreratu dezakegu, baita ere, testuinguru horretan emakumeen kontrako erasoak izango direla.

Beraz, egoera honetan, udal gobernu honek ezin du inprobisatu edo itxaron beste erakunde batzuek zer agintzen dioten horren arabera jokatzeko. Eta horregatik uste dugu beharrezkoa dela, Berdintasun Sailaren bidez, indarkeria matxistaren aurkako udako kanpaina uda hontan aktibatzea, eta, logikoa denez, bizi dugun errealitate aldakorrera egokitzea. Horretarako, premiazkoa da jaietako krisi-mahaira deitzea, Donostiako IV. Berdintasun Planean adierazten den bezala.

Ildo honetatik, nabarmendu behar da udako jaietako programa baten barruko jarduerak ez direla hilabete horietan eraso matxistak ugaritzearen arrazoi bakarra[1]. Eta zentzu horretan, argitalpen batzuek dagoeneko ohartarazten dute pertsonen pilaketa eta jai-giroa, baita beroa[2] ere, delitu horien gorakadan eragin nabarmena izan dezaketen elementuak direla[3].

Horren inguruan galdetuta, zinegotzi ordezkariak, baikortzat jotzeaz gain, aitortu zuen ez zela inolako urratsik egin ildo horretan,

diferentes y cada persona deberá tomar decisiones relacionadas con el ocio estival casi en el momento mismo: viajar o no viajar, que haya o no fiestas, ir o no a un evento festivo, cenar con tres o cinco amistades, playa, montaña, etc.

Pero sí es previsible que, al margen de la decisión del Gobierno municipal sobre la Semana Grande y el resto de fiestas, al igual que el año pasado, se congreguen muchas personas en San Sebastián atraídas por las playas y el buen tiempo. Y por desgracia, también podemos adelantar que en ese contexto se producirán agresiones contra las mujeres.

Por lo tanto, en esta situación, este Gobierno Municipal no puede improvisar o esperar a lo que otras instituciones le ordenen para actuar en consecuencia. Y por eso consideramos necesario, a través del Departamento de Igualdad, activar este verano la campaña de verano contra la violencia machista y adecuarla, como es lógico, a la realidad cambiante que vivimos. Para ello es urgente convocar a la Mesa de Crisis, tal y como se recoge en el IV Plan de Igualdad de San Sebastián.

En este sentido, cabe destacar que las actividades incluidas en un programa de fiestas veraniegas no son la única causa[1] de la proliferación de agresiones machistas durante esos meses. Y en este sentido, algunas publicaciones ya advierten de que la aglomeración de personas y el ambiente festivo, así como el calor[2], son elementos que pueden influir de manera notable en el aumento de estos delitos[3].

Preguntada al respecto, la Concejalía delegada, además de mostrarse optimista, reconoció que no se había dado ningún paso

eta ez zutela oraingoz horretarako asmorik.

Horiek horrela, honako hau da behean sinatzen duen zinegotziak aurkeztutako KONTROL MOZIOA:

1. Donostiako Udalbatzak hertsiki eskatzen dio Udal Gobernuari jaietako Krisi-Mahaia berehala aktiba dezala; azter dezatela egungo egoera eta udako hilabeteetan sor daitezkeen eszenatoki ezberdinak, eta diseina dezatela genero-indarkeriaren aurkako kanpaina bat, egungo errealitate horri egokitua.

2. Donostiako Udalbatzak hertsiki eskatzen dio Udal Gobernuari lehenbailehen elkar dadila Donostiako talde feministekin eta emakume elkarteekin, udako kanpainari buruzko irizpideak partekatzeko eta adostasunak bilatzeko.

3. Donostiako Udalbatzak hertsiki eskatzen dio Udal Gobernuari Donostiako Berdintasun Kontseiluko kideei jakinaraz diezaiela festetako Krisi Mahaian parte hartzen dutenen zerrenda, eta adieraz diezaiela zein irizpideren arabera hautatu diren foro horretarako.

Donostia, 2021ko apirilaren 23an

Reyes Carrere Zabala
EHBIldu taldeko zinegotzia".

1- https://www.isep.es/actualidad-psicologia-clinica/el-cambio-de-habitos-en-vacaciones-aumenta-los-casos-de-violencia-de-genero/
2- https://www.sciencedirect.com/science/article/abs/pii/S0048969718324446?_docanchor=&_fmt=high&_origin=gateway&_rdoc=1&md5=b8429449ccfc9c30159a5f9aeaa92ffb#bb0145
3- https://www.newtral.es/efecto-acumulacion-en-violencia-machista-en-verano-son-asesinadas-mas-mujeres/20190807/

en esa dirección y que por el momento no tenían intención de darlo.

Por todo ello, la concejala que suscribe presenta la siguiente MOCIÓN DE CONTROL

1. El Pleno del Ayuntamiento de San Sebastián insta al Gobierno municipal a activar de forma inmediata la Mesa de Crisis sobre las fiestas, a analizar la situación actual y los diferentes escenarios que pueden surgir en los meses de verano y a diseñar una campaña contra la violencia de género adaptada a la presente realidad.

2. El Pleno del Ayuntamiento de San Sebastián insta al Gobierno municipal a reunirse cuanto antes con los grupos feministas y las asociaciones de mujeres de San Sebastián para compartir criterios y buscar consensos sobre la campaña veraniega.

3. El Pleno del Ayuntamiento de San Sebastián insta al Gobierno municipal a que informe a los miembros del Consejo Asesor de Igualdad de San Sebastián de a la relación de personas participantes en la Mesa de Crisis sobre las fiestas y de los criterios por los que han sido elegidas para este foro.

En San Sebastián, a 23 de abril de 2021

Reyes Carrere Zabala,
concejala del grupo municipal EH Bildu”.

1- https://www.isep.es/actualidad-psicologia-clinica/el-cambio-de-habitos-en-vacaciones-aumenta-los-casos-de-violencia-de-genero/
2- https://www.sciencedirect.com/science/article/abs/pii/S0048969718324446?_docanchor=&_fmt=high&_origin=gateway&_rdoc=1&md5=b8429449ccfc9c30159a5f9aeaa92ffb#bb0145
3- https://www.newtral.es/efecto-acumulacion-en-violencia-machista-en-verano-son-asesinadas-mas-mujeres/20190807/

Eztabaida hasita, Reyes Carrere Zabala andreak, Ane Oyarbide Ochoa andreak eta Aitzole Araneta Zinkunegi andreak parte hartu dute puntu honetan, Bilkura Egunerokoan jasotako bileraren grabazioan ageri dena adieraziz.

Abierta la deliberación, intervienen en este punto las señoras D.ª Reyes Carrere Zabala, D.ª Ane Oyarbide Ochoa y D.ª Aitzole Araneta Zinkunegi, en los términos que resultan de la grabación de la sesión incorporada al Diario de Sesiones.

**BOZKETAREN EMAITZA:**
**BAZTERTUA.**
**GEHIENGOA.**
**ALDEKO BOTOAK: 9 – (6) EH BILDU, (3) ELKARREKIN DONOSTIA.**
**AURKAKO BOTOAK: 17 – (9) EAJ/PNV, (5) PSE-EE.**
**ABSTENTZIOAK: 0.**

**RESULTADO DE LA VOTACIÓN:**
**RECHAZADO.**
**MAYORÍA.**
**VOTOS A FAVOR: 9 – (6) EH BILDU, (3) ELKARREKIN DONOSTIA.**
**VOTOS EN CONTRA: 17 – (9) EAJ/PNV, (5) PSE-EE, (3) PP.**
**ABSTENCIONES: 0.**

---------------

**II.2.11. Kontrol mozioa, Elkarrekin Donostia taldeak aurkeztua, Loiola zeharbideko bidegorriari buruz.**

“Elkarrekin Donostia udal taldeko zinegotzi Haizea Garay Gallastegui naizen honek, indarrean dagoen Udalbatzaren Araudi Organikoaren 98. artikulua oinarri, KONTROL MOZIO hau aurkezten dut GUNE PUBLIKOEN BATZORDEAN (OBRAK ETA HIRI ZERBITZUAK) Loiola zeharbideko bidegorriari buruz aurkezturiko interpelazioaren ondorioz.

JUSTIFIKAZIOA

Larrialdi Klimatikoaren Adierazpenetik urtebete bete da, eta, adierazpen honekin batera garatu beharreko jarduketen artean, zehazki, mugikortasunaren arloan, Donostiako bidegorrien sarea eta garraio publikoaren sistema hobetzea aipatzen zuten. Udal honen

**II.2.11. Moción de control, presentada por el Grupo Elkarrekin Donostia, relativa al bidegorri de la Travesía de Loiola.**

“Haizea Garay Gallastegui, concejala del Grupo municipal Elkarrekin Donostia, al amparo del vigente artículo 98 del Reglamento Orgánico del Pleno, presenta la siguiente MOCIÓN DE CONTROL tras la interpelación correspondiente en la COMISIÓN DE ESPACIO PÚBLICO, OBRAS Y SERVICIOS URBANOS del presente mes relativa al nuevo tramo de bidegorri de la travesía de Loiola.

JUSTIFICACIÓN

Se ha cumplido un año de la Declaración de Emergencia Climática y, entre las actuaciones a desarrollar unidas a esta declaración, concretamente en materia de movilidad, se señala la mejora de la red de bidegorris de la ciudad y la mejora del sistema de transporte

helburuen artean mugikortasun sostengagarria garatzea eta, horren barruan, bizikleta garraiobide gisa erabiltzea sustatzea badago, lehentasuna du garraio hori erabiltzen duten erabiltzaileen beharrak asetzeak; hau da, bizikleta bidezko mugikortasuna segurua izatea eta ohiko erabilera sustatzea.

público. Si entre los objetivos de este ayuntamiento se encuentra el desarrollo de una movilidad sostenible y, dentro de ella, el incentivo del uso de la bicicleta como transporte, una cuestión prioritaria a atender son las necesidades de los usuarios que utilizan este medio; esto es, garantizar que la movilidad en bicicleta sea segura y fomentar su uso habitual.

Alde horretatik, gogoratu behar dugu gero eta gehiago erabiltzen dituztela bidegorriak adingabeekin ibiltzen diren pertsonek, edo adin txikikoak garraiatzeko gurdiak daramatzatenek; era horretako erabileretarako mugikortasun segurua bermatzeko, erreien zabalerak nahikoa handia izan behar du. Erreiaren trazadura edo diseinua egokia ez bada, deseroso gertatzen da eta/edo segurtasunik eza sortzen du; jakina, bizikleten erabiltzaileek berek beste garraiobide batzuk aukeratuko dituzte.

En este sentido, debemos recordar que los bidegorris son cada vez más utilizados por personas que circulan con menores, o que llevan carros para el transporte de estos menores, y a fin de garantizar una movilidad segura para este tipo de usos, la anchura de los carriles ha de ser suficientemente amplia. Si el trazado o el diseño del carril no es adecuado, es incómodo y/o genera inseguridad, lógicamente los mismos usuarios de las bicicletas optarán por otros medios de transporte.

Duela gutxi Loiola zeharbidean moldatu duten bidegorriaren zatiak bi metro zabal ere ez diren eremuak ditu. Donostiako bidegorrien sarearen erabiltzaileek eta Kalapie kolektiboak salatu dute zati horien zabalerak ez duela legezko gutxienekoa betetzen eta bide berean paraleloan ibiltzeko aukera eragozten duela. Mugitzeko zailtasunak dituzten pertsonek eta salgaien garraiatzaileek, gero eta maizago, erabiltzen dituzten trizikloak ere ezin dira igaro. Gainera, bidegorria egin duten eremuak aukera ematen zuen haren trazadurak zabalera handiagoa izateko eta, hartara, ezarritako gomendio eta irizpideak betetzeko.

El tramo de bidegorri recientemente creado en la travesía de Loiola tiene zonas en las que la anchura no llega ni a 2 metros de ancho. Los usuarios de la red de bidegorris de Donostia y el colectivo Kalapie han denunciado que su anchura no cumple el mínimo legal e impide la posibilidad de transitar en paralelo en un mismo carril. Tampoco permite el paso de los triciclos que son utilizados por personas con dificultades de movilidad y, con cada vez mayor frecuencia, como transporte de mercancías. Además, la zona en la que se ha ejecutado el bidegorri, permitía que el trazado de éste fuese de una anchura superior y con ello cumplir con las recomendaciones y criterios establecidos.

Bestalde, salatu dutenez, trazadura espaloitik doa eta sigi-sagak egiten ditu autobus geralekuak saihesteko; hala, garraio publiko horren erabiltzaileek etengabe zeharkatzen

Por otra parte, también han denunciado que el diseño del trazado va por la acera y hace zig-zags para evitar las paradas de autobús, de forma que, los usuarios y usuarias de este

dute bidegorria, geralekuetara iristeko, baita autobusetatik irtetean ere. Bidegorrian, oinezkoek etengabe traba egitea jasan behar izaten dute bidegorriaren erabiltzaileek<0} Oro har, Donostiako bidegorrien erabiltzaileek salatu dute zirkulaziorako trazadura deserosoa eta zaila dela, eta horrek bizikletaren erabilera bultzatu eta mugikortasun sostengagarria sustatu ordez, bizikletaren erabilera baztertzen du.

Zinegotzi ordezkariak, errei horren zabaleraren neurriari buruz batzordean interpelazioa eginda, esan zuen 2,20 metro zabal zela, eta, beraz, baieztapen horien berri izan ondoren, Donostiako bidegorrien erabiltzaileak hara itzuli dira zabalera zehatza neurtzeko, eta, frogatu dutenez, tarteren batean zabalera ez da iristen bi metrora ere. Salaketaren ondoren, espaloiko baldosak errei baten ondoan margotu dituzte; zehazki, baldosa bakoitzeko 4 zatietako bi, bidegorriaren lerro zuriaren zabalera zentimetro batzuk handitzen saiatzeko, agian. Hala ere, neurri horrek ez du konpontzen erreiaren zabalera falta, ez eta espazio falta bideratzen ere.

Hori dela eta, hauxe da gure

KONTROL MOZIOA

1. Donostiako Udalbatzak udal Gobernuari hertsatuki eskatzen dio onar dezala Loiolako bidegorria gaizki egin izana konpontzeko hartu diren neurriak ez direla nahikoak, eta bidegorriaren erabilera erreiek, gutxienez, 2,50 metroko zabalera izan dezaten egin beharreko obrak egin ditzala, zolatzeko material egokiak erabilita.

transporte público atraviesan continuamente el bidegorri para llegar a las paradas, y también al salir de los autobuses. Los y las usuarias de este bidegorri se encuentran con constantes interferencias de peatones en el bidegorri. En general, los usuarios de la red de bidegorris de Donostia denuncian que el trazado es incómodo y difícil para la circulación, lo cual, en lugar de favorecer su uso e incentivar la movilidad sostenible, desincentiva el uso de la bicicleta.

La concejala delegada, siendo interpelada en comisión acerca de la medida de anchura de este carril, aseguró que era de 2,20 metros, por lo que, tras conocer estas afirmaciones, usuarios de los bidegorris de Donostia han vuelto al lugar para medir la anchura exacta, demostrando que la anchura, en algún tramo, ni siquiera alcanza los dos metros. Tras la denuncia, se ha procedido a pintar las baldosas de la acera junto a uno de los carriles; concretamente dos de los 4 baldosines de cada baldosa, quizás intentando ampliar unos centímetros la anchura de la línea blanca del bidegorri. Sin embargo, esta medida no remedia la falta de anchura del carril, ni soluciona la falta de espacio.

Por todo lo antecedente, presentamos la siguiente:

MOCIÓN DE CONTROL

1. El Pleno del Ayuntamiento de Donostia / San Sebastián insta al Gobierno municipal a admitir que las medidas tomadas para dar solución a la mala ejecución del bidegorri de Loiola son insuficientes, y a proceder a realizar las obras necesarias para que los carriles de uso de este bidegorri cuenten con una anchura mínima total de 2,50 metros utilizando los materiales para la pavimentación adecuados.

2. Donostiako Udalbatzak udal Gobernuari hertsatuki eskatzen dio Loiolako bidegorriaren trazadura zuzentzeko, beste erabilera batzuen interferentziarik izan ez dezan.

3. Donostiako Udalbatzak udal Gobernuari hertsatuki eskatzen dio hiriko bidegorrien sarea lehenbailehen hobetzeko, eta sarean berriro esku har dezan, gutxienez 2,50 metroko zabalera lortzeko.

4. Donostiako Udalbatzak udal Gobernuari hertsatuki eskatzen dio Donostiako bidegorrien sarea diseinatu eta egin dezala bizikleta erabiltzen duten kolektiboekin elkarlanean jardunda eta Mugikortasuneko Kontseilu Sektorialean proposamenak aztertuta.

Donostian, 2021eko apirilaren 23an

Haizea Garay Gallastegui,
Elkarrekin Donostiako zinegotzia"

2. El Pleno del Ayuntamiento de Donostia / San Sebastián insta al Gobierno municipal a la corrección del trazado del bidegorri de Loiola para que no sufra interferencias por otros usos.

3. El Pleno del Ayuntamiento de Donostia / San Sebastián insta al Gobierno municipal a mejorar de forma urgente la red de bidegorris de la ciudad procediendo a ejecutar las nuevas intervenciones en la red con una anchura mínima de 2,50 metros.

4. El Pleno del Ayuntamiento de Donostia / San Sebastián insta al Gobierno municipal a diseñar y ejecutar la red de bidegorris de la ciudad en colaboración con colectivos usuarios de la bicicleta, valorando las propuestas en el consejo sectorial de Movilidad.

Donostia, de 23 de abril de 2021

Haizea Garay Gallastegui
Concejala de Elkarrekin Donostia".

Eztabaida hasita, Haizea Garay Gallastegui andreak, Borja Corominas Fisas jaunak, Garbiñe Alkiza Lopez de Samaniego andreak eta Pilar Arana Perez andreak parte hartu dute puntu honetan, Bilkura Egunerokoan jasotako bileraren grabazioan ageri dena adieraziz.

Abierta la deliberación, intervienen en este punto el/las señor/as D.ª Haizea Garay Gallastegui, D. Borja Corominas Fisas, D.ª Garbiñe Alkiza Lopez de Samaniego y D.ª Pilar Arana Pérez, en los términos que resultan de la grabación de la sesión incorporada al Diario de Sesiones.

**BOZKETAREN EMAITZA:**
**BAZTERTUA.**
**GEHIENGOA.**
**ALDEKO BOTOAK: 12 – (6) EH BILDU, (3) PP, (3) ELKARREKIN DONOSTIA.**
**AURKAKO BOTOAK: 14 – (9) EAJ/PNV, (5) PSE-EE.**
**ABSTENTZIOAK: 0.**

**RESULTADO DE LA VOTACIÓN:**
**RECHAZADA.**
**MAYORÍA.**
**VOTOS A FAVOR: 12 – (6) EH BILDU, (3) PP, (3) ELKARREKIN DONOSTIA.**
**VOTOS EN CONTRA: 14 – (9) EAJ/PNV, (5) PSE-EE.**
**ABSTENCIONES: 0.**

---------------

**II.2.12. Kontrol mozioa, Elkarrekin Donostia taldeak aurkeztua, Santa Klara uharteko dikeko kalteak eta konpontzeko egin beharreko lanak direla eta.**

“Elkarrekin Donostia udal taldeko zinegotzi Haizea Garay Gallastegik, Udalbatzaren Organo Araudiaren 98. artikuluak jartzen duena aintzakotzat hartu eta Santa Klara uharteko kai-muturrean diren kalteen eta haiek konpontzeko obren gaineko KONTROL MOZIO hau dakar, GUNE PUBLIKOEN BATZORDEAN (OBRAK ETA HIRI ZERBITZUAK) interpelazioa egin eta gero.

JUSTIFIKAZIOA

2020ko urrian, itsasargiaren obretara egindako bisita batean, Santa Klara uharteko kaia-muturraren egitura hondatuta zegoela ikusi zuten. Hala, hondatuta zegoen tokia aztertu ondoren, zimenduan zulo handi batzuk zeudela zehaztu zuten, haren egituraren egoera eta egonkortasuna arriskuan jartzeko modukoak.

Ekaitzak eta itsasoaren indarrak egin dituela kalteak esan dute, eta, toki txarrean daudenez --uhartera jende garraioan ibiltzen diren txalupak hartzeko tokia, uhartera iristen diren pertsona gehienak ibiltzen direna--, konpontzeari ekitea erabaki dute. Hain zuzen ere, Gobernu Batzarrak apirilaren 20an izan zuen bileran, premiazko bidetik ematea erabaki zuen konpontzeko obra. Egiteko, hiru hilabete inguru beharko dituztela jo dute, eta, hortaz, gauzak pentsatuta bezala ateratzen badira, uztailaren azkenerako eginda izango direla.

**II.2.12. Moción de control, presentada por el Grupo Elkarrekin Donostia, relativa a los daños en el dique de la Isla Santa Clara y a las obras a ejecutar para su reparación.**

“Haizea Garay Gallastegui, concejala del Grupo municipal Elkarrekin Donostia, al amparo del vigente artículo 98 del Reglamento Orgánico del Pleno, presenta la siguiente MOCIÓN DE CONTROL tras la interpelación correspondiente en la COMISIÓN DE ESPACIO PÚBLICO, OBRAS Y SERVICIOS URBANOS del presente mes relativa a los daños que afectan el dique de la Isla Santa Clara y las obras de reparación.

JUSTIFICACIÓN

El mes de octubre del pasado año 2020, coincidiendo con una visita a las obras del Faro, se descubrieron daños en la estructura del dique-muelle de la Isla Santa Clara y, tras ser analizada la zona dañada, se determinó que había unos grandes socavones en la cimentación que amenazaban el estado y la estabilidad de la estructura.

Los daños producidos en este elemento han sido achacados a los temporales y a la fuerza del mar y, dada la relevancia del lugar donde se encuentran, concretamente la zona de acceso del servicio de motoras a la isla, esto es, por donde acceden la mayor parte de las personas que llegan a la isla, se ha estimado proceder a su reparación. De hecho, la Junta de Gobierno Local del pasado día 20 de abril aprobó la adjudicación de la reparación por vía de urgencia y se ha estimado que la obra durará alrededor de 3 meses, finalizando, si todo sale según lo previsto, para finales de julio.

Beraz, eragozpenik sortzen ez bada, uztailaren amaieran izango dira obrak bukatuta, hau da, ekainaren 1ean udako denboraldia hasi eta bi hilabete geroago. Kalte larri horiek joan den urteko urrian ikusi zituztela kontuan hartuta, ulertezina da lehenago ez hastea konpontzen, udarekin batera ez tokatzeko obrak.

Nos encontramos, por tanto, que la previsión de finalización de las obras llegará, si no hay contratiempos, a finales de julio, esto es, transcurridos dos meses desde el comienzo de la temporada estival el próximo 1 de junio. Teniendo en cuenta que los graves daños fueron detectados en el mes de octubre del pasado año, resulta incomprensible cómo la obra de reparación no se ha comenzado con anterioridad, precisamente para evitar que coincidiese con la temporada estival.

Hil honetako batzordean, Kulturako eta Euskarako zinegotzi eskuordedunak ez zuen baieztatu kaia erabiltzea eta obrak egitea biak batera egiteko modua izango denik; begiratuko dutela esan zuen, eta batez ere herritarren segurtasuna bermatzea lehenetsiko dutela esan zuen behin eta berriz. Hala ere, egun bat geroago, obra premiazko bidetik ematea onartu zuen tokiko gobernu batzarraren ondoren, alkateak jakinarazi zuen obra eta udako denboraldiari dagozkion erabilerak bateragarri izango direla, eta baita itsasargiko eskultura ikusteko bisitak ere.

En la comisión del presente mes el concejal delegado de Cultura y Euskera no confirmó la compatibilización de usos y obras, y señaló que se iba a estudiar dicha compatibilización, insistiendo sobre todo en que se garantizaría la seguridad de la ciudadanía. Sin embargo, un día después, tras la junta de gobierno local donde se aprobó la adjudicación de la obra por vía de urgencia, el alcalde anunció la compatibilización de la obra con los usos propios de la temporada estival, así como las visitas de la obra escultórica del Faro.

Alkateak berak premiazko konponketa esleitzeko emandako justifikazioa kontuan hartuta, jendeak txalupa hartzen duen tokiaren parean zimenduaren azpia janda zegoela eta arriskua zegoela esan baitzuen, harrigarria da erabilera hori eta obrak egitea bateragarri izatea. Pertsonen segurtasunak izan behar du aurrena, eta oraindik eta gehiago pertsonak uhartera sartzeko erabiltzen den tokian bertan esku hartu behar bada.

Teniendo en cuenta la justificación para adjudicar la reparación por vía de urgencia realizada por el propio alcalde, advirtiendo una situación de peligro provocada por el descalce de la base de cimentación del dique en el punto concreto que utiliza el servicio de motoras para el acceso de las personas, resulta sorprendente que se vaya a dar esas compatibilización de usos y obra. La seguridad de las personas ha de ser prioritaria, máxime cuando se va a intervenir directamente en la zona del muelle por donde acceden las personas a la isla.

Bestalde, hiriko mantentze-lanen sailetik ere adierazi dute itsasargira doan bidean ere obra batzuk egin behar dituztelakoa, maiatzean

Por otra parte, desde el departamento de mantenimiento urbano también se ha avanzado que va a procederse a la ejecución

bukatu eta, hartara, ekainean eskultura inauguratzerako konponduta izateko hura.

de obras en el camino de la Isla que conduce hasta el Faro, para que éstas estén finalizadas en mayo y así poder tener el camino arreglado para la inauguración de la escultura en junio.

Hori dela eta, hauxe da gure

Por todo lo antecedente, presentamos la siguiente:

KONTROL MOZIOA

MOCIÓN DE CONTROL

1. Donostiako Udalbatzak Udal Gobernuari eskatzen dio dikearen egitura konpondu eta egonkortzeko obrak eta itsasargiko bidekoak bukatu arte ez izateko udako denboraldiko erabilerarik eta itsasargiko eskultura ikusteko bisitarik uhartean, bisitarien segurtasuna bermatu ahal izateko.

1. El Pleno del Ayuntamiento de Donostia / San Sebastián insta al Gobierno municipal a evitar la compatibilización de los usos propios de la temporada estival así como las visitas a la obra escultórica del Faro hasta que no culminen las obras de reparación y estabilización de la estructura del dique así como de la subida al Faro al objeto de garantizar la seguridad de los y las visitantes de la isla.

2. Donostiako Udalbatzak Udal Gobernuari eskatzen dio atzeratzeko Cristina Iglesiasen eskulturaren inaugurazioa harik eta ontziralekua konpondu, kai-muturraren egonkortasuna bermatu eta farora igotzeko bidea hobetu arte.

2. El Pleno del Ayuntamiento de Donostia / San Sebastián insta al Gobierno municipal a aplazar la inauguración de la escultura de Cristina Iglesias hasta que no se haya finalizado la obra de reparación del embarcadero, se garantice la estabilidad del dique y se proceda a mejorar el camino de subida al Faro.

Donostia, 2021eko apirilaren 23a

Haizea Garay Gallastegui,
Elkarrekin Donostiako zinegotzia".

Donostia, de 23 de abril de 2021

Haizea Garay Gallastegui
Concejala de Elkarrekin Donostia".

Eztabaida hasita, Haizea Garay Gallastegui andreak, Borja Corominas Fisas jaunak, Jon Markel Ormazabal Gaztañaga jaunak eta Jon Insausti Maisterrena jaunak parte hartu dute puntu honetan, Bilkura Egunerokoan jasotako bileraren grabazioan ageri dena adieraziz.

Abierta la deliberación, intervienen en este punto los/la señores/a D.ª Haizea Garay Gallastegui, D. Borja Corominas Fisas, D. Jon Markel Ormazabal Gaztañaga y D. Jon Insausti Maisterrena, en los términos que resultan de la grabación de la sesión incorporada al Diario de Sesiones.

**BOZKETAREN EMAITZA:**
**BAZTERTUA.**
**GEHIENGOA.**
**ALDEKO BOTOAK: 9 – (6) EH BILDU, (3) ELKARREKIN DONOSTIA.**
**AURKAKO BOTOAK: 16 – (9) EAJ/PNV, (5) PSE-EE, (2) PP.**
**ABSTENTZIOAK: 1 – PP PLENO ARETOAN EZ EGOTEAGATIK.**

**RESULTADO DE LA VOTACIÓN:**
**RECHAZADA.**
**MAYORÍA.**
**VOTOS A FAVOR: 9 – (6) EH BILDU, (3) ELKARREKIN DONOSTIA.**
**VOTOS EN CONTRA: 16 – (9) EAJ/PNV, (5) PSE-EE, (2) PP.**
**ABSTENCIONES: 1 – PP POR HABERSE AUSENTADO DE LA SALA.**

---------------

**ETA BILERAK BESTE XEDERIK EZ DUENEZ, LEHENDAKARITZAK, AKTAKO LEHEN ORRIAREN BURUAN ADIERAZITAKO EGUNEKO ARRATSALDEKO ORDU BI ETA ERDIETAN AMAITUTZAT JO DU BILERA. ETA NIK, IDAZKARI NAIZEN ALDETIK, BILERAN ESANDAKO GUZTIAREN FEDE EMATEN DUT:**

**Y NO SIENDO OTRO EL OBJETO DE LA SESIÓN, LA PRESIDENCIA LA DECLARA TERMINADA, LEVANTÁNDOSE EL ACTO, SIENDO LAS CATORCE HORAS Y TREINTA MINUTOS DE LA FECHA EXPRESADA EN EL ENCABEZAMIENTO DE LA PRESENTE ACTA, DE TODO LO CUAL, YO, EL SECRETARIO, DOY FE:**

**LEHENDAKARIA: / EL PRESIDENTE:**

**IDAZKARIA: / EL SECRETARIO:**